

# UDAKO AISIALDI ESKAINTZA HAUR ETA NERABEAK

**Udaleku irekiak ▶ Kanpamentu Teknologikoa**  
**Uda Kirol Kanpaina ▶ Sormen Tailerra**  
**Bibliopiszina ▶ Uretako Indusketa**  
**Astromia Jardunaldia**



LABORATORIUM



GIPIZKOAK

# UDALEKU IREKIAK

## Uztailaren 2tik 27ra

10:00etatik 13:00etara

Udaleku irekiak Bergarako ume guztiak elkarrekin egoteko aukera ezin hobea da, euskaraz eta aisialdi hezitzaileaz ondo pasatzeko.

### ► PARTE-HARTZAILEAK:

- 2006-2015 urte bitartean jaiotako haurrak
- Haurrak Bergaran errolatuta egon beharko du

Familiak 3 edo 4 asteko udalekuetarako izena eman ahal izango dute.

- 3 asteko udalekuak: uztailaren 2tik 20ra
- 4 asteko udalekuak: uztailaren 2tik 27ra

Udaleku irekietarako San Martin Agirre ikastetxeko eraikin biak erabiliko dira.

Angiozarren eta Osintxun ere udalekuak eskainiko dira.

### ► IZEN-EMATEA:

Apirilaren 16tik maiatzaren 11ra bitartean

### • LIBURUTEGIAN

Astelehenetik ostiralera >> 8:30-20:30

Larunbatetan >> 9:00-13:00

### **Eraman beharreko dokumentazioa:**

- Izen emate orria beteta.
- Bankuko ordainagiria.

### • INTERNETEZ

[www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean UDALEKUAK atalean

**EPEZ KANPO EZ DA ESKAERARIK ONARTUKO**

## ► ORDAINKETA:

Transferentzia bidez egingo da kontu hauetako batean:

- Euskadiko Kutxa (laborala): 3035 0009 16 0090900017
- Kutxabank: 2095 5070 71 1062071534

## ► KUOTA:

Aukeratutako aste kopuruaren eta izena eman duen seme-alaben kopuruaren arabera izango da:

UDALEKU IREKIAK	Iraupena: 3 aste	Iraupena: 4 aste
1. eta 2. umea	75€ bakoitza	100€ bakoitza
3. umea eta ondorengoak	doan	doan

Ordainketa egiterakoan zehaztu haurren izen abizenak eta gero “udalekuak” hitza jarri. [Adib.: Nere Agirre Gomez - udalekuak](#)

## PLAZA MUGATUAK EGONGO DIRA

Eskaintzen diren plazak baino eskaera gehiago badago, zozketa egingo da!

## ► GURASOEKIN BILERAK 18:00etan:

- Ekainak 12: Angiozarko Arbiaska aretoan.
- Ekainak 13: Seminarixoan.
- Ekainak 14: Osintxuko ludotekan.



# UDA KIROL KANPAINA

HAURRAK				
MAILA	ADINA	IRRISTAKETA	IGERIKETA	K.A.B.*
HH	3-6		1. eta 2. txanda 10:15-11:00 zapaburu dordoka	
LH1	6-7	1. txandan bakarrik Astelehenetik ostiralera 11:00-12:00	11:00- 11:45 zapaburu dordoka	1. eta 2. txandetan Astelehena eta Asteazkena 17:00-18:00
LH2	7-8		16:00-16:45 zapaburu dordoka amurrain	
LH3	8-9	2. txandan bakarrik Astelehenetik ostiralera 11:00-12:00	16:45-17:30 zapaburu dordoka amurrain	1. eta 2. txandetan Astearta eta Osteguna 17:00-18:00
LH4	9-10		17:30-18:15 bale marrazo	
LEKUA		UDAL PILOTALEKUA	AGORROSIN	

\*K.A.B.: Kirol Alternatiboen Bila

GAZTEAK (Txanda bakarra. Ekainak 25-Uztailak 20)				
MAILA	ADINA	ESKALADA	TENISA	IRRISTAKETA
LH5	10-11	10:30-11:30 astearta eta osteguna	11:45-12:45 astearta eta osteguna	12:00-13:00 astelehena asteazkena ostirala
LH6	11-12			
DBH1	12-13			
DBH2	13-14			
DBH3	14-15			
DBH4	15-16			
DBHO	16-18			
LEKUA		LABEGARAIETA		



**GAZTEAK (Txanda bakarra. Ekainak 25-Uztailak 20)**

MAILA	ADINA	DEFENTSA PERTSONALA	ARETO TXIRRINDUA	ZUMBA	KROS FITA	PADELA
LH5	10-11	11:00-12:30 asteartea eta osteguna	11:30-12:30 astelehena asteazkena ostirala	10:30-11:30 astelehena asteazkena ostirala	10:30-11:30 asteartea eta osteguna	10:30-11:30 11:30-12:30 12:30-13:30 astelehena eta asteazkena
LH6	11-12					
DBH1	12-13					
DBH2	13-14					
DBH3	14-15					
DBH4	15-16					
DBHO	16-18					
<b>LEKUA</b>		<b>AGORROSIN</b>				

**GAZTEENTZAKO TXAPELKETAK**

KIROLA	FRONTENISA	PADELA
<b>EGUNA</b>	Ekainak 25-Uztailak 6	Uztailak 9-Uztailak 20
<b>PARTAIDE KOP.</b>	2 taldekide	2 taldekide
<b>KATEGORIAK</b>	1) LH6 - DBH1 2) DBH 2, 3, 4	1) LH6 - DBH1 2) DBH 2, 3, 4
<b>LEKUA</b>	<b>UDAL PILOTALEKUA</b>	<b>AGORROSIN</b>

**PREZIOAK HAURRAK**

	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
<b>IGERIKETA</b>	34,55 €	70,40 €
<b>IRRISTAKETA</b>	29,55 €	60,36 €



**PREZIOAK GAZTEAK**

	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
<b>ESKALADA</b>	35,45 €	72,43 €
<b>DEFENTSA PERTSONALA</b>		
<b>ZUMBA</b>		
<b>A. TXIRRINDUA</b>		
<b>IRRISTAKETA</b>		
<b>PADELA</b>	23,63 €	48,29 €
<b>KROS FITA</b>		
<b>TENISA</b>		
<b>K.A.B.</b>	11,82 €	24,14 €
<b>TXAPELKETAK (partaide bakoitzeko)</b>	6,60 €	

► **TXANDEN EGUTEGIA (ekainaren 29an EZ da saiorik egongo)**

- 1. txandako ikastaroak: ekainaren 25etik uztailaren 6ra
- 2. txandako ikastaroak: uztailaren 9tik 20ra
- Txanda bakarreko ikastaroak: ekainaren 25etik uztailaren 20ra

► **IZEN-EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:**

Agorrosin Ekintza Gunean.

Ikastaroetan izena emateko epea: apirilaren 15etik ekainaren 10era

- 1. Txandan eta txanda bakarrean aurrera aterako diren taldeen argitaratzea eta plaza libreak betetzeko epea: ekainak 11
- 2. Txandan aurrera aterako diren taldeen argitaratzea: Uztailak 2

► **ARAUDIA:**

Izen-ematea etorri ahala egingo da, zozketarik gabe.

Zapaburuak ez diren ikasleek mailaketa froga egin beharko dute azken hiru hilabeteetan ez badute igeriketa ikastarorik egin.

Bajarik ez da onartuko izen-ematea itxi eta gero (ekainak 10). Horregatik plaza lortzeak ordainketa nahitaez egitea dakar.

Jarduera bakoitza, aurrera ateratzeko, GUTXIENeko taldekide kopuru bat beharko da.

Aurrera aterako ditugun taldeen berri ezagutzea izena eman duenaren ardura izango da. Informazio hori Agorrosingo iragarki taulan eta [www.bergarakirola.eus](http://www.bergarakirola.eus) webgunean egongo da eskura.

Ordainketa ikastaroa hasi baino astebete lehenago egin beharko da:

1. Kontu korrontea helbideratuz.
2. Ordainketa banketxean egin eta ordainagiria Agorrosinera ekarriz ikastaroa hasteko eguna baino lehen.
3. Agorrosineko harreraren txartelarekin.

Abonatu tratamendua jasoko dute kobraketa egunean abonatuta daudenak.

# KANPAMENTU TEKNOLOGIKOAK

**Uztailaren 9tik 13ra**  
**09:00etatik 14:00etara**

## **RALLYBOT (9-12 urte)**

### **Tailerraren azalpena:**

“RallyBot” lasterketan parte hartzeko ibilgailu autonomoa eraikiko dute ikasleek. Helmugara lehen postuan iristeko garrantzitsua da talde bakoitzak kotxea ondo diseinatuta eta programatuta izatea.

Lasterketa kontrolatzeko ere markagailu elektroniko bat egingo dute taldeek. Azkenean gidatze-simulagailua den bideo-joko bat programatzen ikasiko dute.



## **GIRLS & TECH (9-12 urte)**

### **Tailerraren azalpena:**

Tailer honetan Tokymaker plaka elektronikoarekin eta bere sentsoreekin programatzen ikasiko dute. Beraien sormena garatuko dute gitarra elektriko bat muntatzen eta erreproduzitu nahi duten soinua programatzen.

Etxe domotiko bat ere programatuko dute, bertan, argiak, atea, tenperatura... kontrolatuko dituzte.



## **DRONE MASTER (+12 urte)**

### **Tailerraren azalpena:**

Dronetan aditu batek jakin beharreko guztia ikasiko dute: drona muntatu eta funtzionamendua ulertu (osagaiak, motoreak, kontrolatzaileak, azelerometroak, giroskopioak, etab. ...).

3Dan diseinatzen ere ikasiko dute eta dron baten txasia inprimatuko dute. Gainera, simulatzaile baten bitartez, dronak suntsitzeko arriskurik gabe hegan egiten ikasiko dute.





## ► IZEN-EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean.

- **LABORATORIUM-EN** Asteazkena eta osteguna >> 10:00-14:00  
Ostirala eta larunbata >> 10:00-14:00  
>> 16:00-19:00  
Igandea >> 10:00-13:00
- **LIBURUTEGIAN** Astelehenetik ostiralera >> 8:30-20:30  
Larunbatetan >> 9:00-13:00

### **Eraman beharreko dokumentazioa:**

- Izen-emate orria beteta.
- Bankuko ordainagiria.

### • INTERNETEZ

[www.laboratorium.eus](http://www.laboratorium.eus) webgunean UDAKO PROGRAMA.

## **EPEZ KANPO EZ DA ESKAERARIK ONARTUKO**

### ► **ORDAINKETA:**

Transferentzia bidez egingo da kontu hauetako batean:

- Laboral Kutxa: 3035 0009 16 0090900017
- Kutxabank: 2095 5070 71 1062071534

### ► **KUOTA:**

Kopurua, izena eman duen seme-alaba kopuruaren arabera izango da.

1. seme/alaba: 117 €    2. seme/alaba: 90 €    3. seme/alaba: 45 €

Ordainketa egiterakoan zehaztu haurren izen-abizenak eta gero aukeratutako ikastaroa jarri. Adib.: **Nere Agirre Gomez - Girls&Tech.**

## **PLAZA MUGATUAK EGONGO DIRA**

Eskaintzen diren plazak baino eskaera gehiago badaude, zozketa egingo da!

# SORMEN TAILERRA

**Uztailaren 16tik 27ra**

**10:00etatik 13:00etara**

**Astelehenetik ostiralera**

**Tailer honen helburua sormena bere osotasunean lantzea da.**

► **PARTE-HARTZAILEAK:**

2006, 2007 eta 2008an jaiotako haurrei zuzenduta.

Tailerak irauten duen denboran parte-hartzaileek antzezlan bat sortuko dute eta horretarako behar dituzten pieza, objektu, jantzi eta atrezzoak egingo dute sormen tailerrean bertan.

Antzerkiarekin lotuta gorputz adierazpena landuko dute, ahots adierazpena, inprobisazio jokoak egin...

Lan plastikoarekin lotuta pintura eta marrazketa, eskultura, irudien muntaketa, moda diseinua, etab...

► **IZEN-EMATEA:**

Apirilaren 16tik maiatzaren 11ra bitartean

• **LIBURUTEGIAN**

Astelehenetik ostiralera >> 8:30-20:30

Larunbatetan >> 9:00-13:00

• **INTERNETEZ**

[www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean SORMEN TAILERRA atalean.

**EPEZ KANPO EZ DA ESKAERARIK ONARTUKO**

► **ORDAINKETA:**

Transferentzia bidez egingo da kontu hauetako batean:

- Euskadiko Kutxa (laborala): 3035 0009 16 0090900017

- Kutxabank: 2095 5070 71 1062071534

► **KUOTA:**

Parte-hartzaile bakoitzak, **onartua izan dela konfirmatzen zaionean** 60€-ko kuota ordaindu beharko du.



# BIBLIOPISZINA

## Ekainaren 25etik Uztailaren 23ra

15:00etatik 18:00etara

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara liburutegiko zerbitzua igerilekuko berdegunean eskainiko da.



Bertan, erabiltzaile guztiek, liburuak maileguan jasotzeko aukera izango dute; maileguak, erreserbak eta eskaerak bideratzeko gune egokia. Udan erabiltzaileengana irakurketa gerturatzea da garrantzitsuena.

Etorri, erabili, irakurri eta ondo pasa bertan dituzun liburuekin.

## URETAKO INDUSKETA ARKEOLOGIKOA

### Uztailaren 3an

17:00etatik 19:30era



#### ► PARTE-HARTZAILEAK:

2007-2009 urte bitartean jaiotako haurrak.

Uluburu itsasontzian ur azpiko indusketa arkeologikoa. Duela ehunka urte hondoratu zen itsasontzi bat arkeologikoki industeko aukera izango duzu ur azpian gelditu ziren objektu eta bitxiak aurkituz eta berreskuratuz. Ondoren aztertu eta sailkatu egingo dira, itsasontziaren historia ezagutzeaz gain primeran pasako duzu.

► **NON:** Agorrosingo Igerilekuan (ordu horretarako haurrak prest egon beharko du igerilekuan). Ezinbestekoa igeri egiten jakitea, bainujantzia, urretako betaurrekoak eta urretako txanoa.

#### ► IZEN-EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era [www.laboratorium.eus](http://www.laboratorium.eus) webgunean UDAKO PROGRAMA atalean. Dohainik.

# ASTRONOMIA JARDUNALDIA

## Uztailaren 18an

Jardunaldia bi ekintzez osatuta dago. Goizean umeak tailer batean egongo dira eta gauean, beraien gurasoekin behaketa bat egin ahal izango dute.

### ► GAUEKO ZERUAREN TAILERRA (10-11 urte)

Tailer honen helburua udako zerua ezagutzea da. Era praktikoa batean neska-mutikoek zeruko mugimenduak, udako zeruko konstelazioak eta planetak identifikatzen ikasiko dute.

**Uztailaren 18an, 11:00-13:00. Iraupena 2 ordu.**

**Laboratorium museoan**



### ► GAUEKO ZERUAREN BEHAKETA (FAMILIAREKIN BATERA)

Gaueko zeruaren tailerrean ikasitakoa praktikan jartzea da honen helburua.

Konstelazioak begibistaz aurkitzeaz gain, Ilatargi taldearen teleskopioaren bitartez ilargia eta planetak ikusiko ditugu.

**Uztailaren 18an, 22:00-00:00. Iraupena 2 ordu.**

► **OHARRA:** eguraldiaren arabera gaueko behaketaren data aldatu daiteke.

### ► IZEN-EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era [www.laboratorium.eus](http://www.laboratorium.eus) webgunean UDAKO PROGRAMA atalean. Dohainik.